



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko uztailaren 17a

78. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, jakitekoa Foruzaingoaren arduradunak nola izan zezakeen zenbait parlamentarik beren bulegoetan 24 orduz egoteari buruz hartutako erabakiaren berri, erabaki hori jakinarazi aurretik. Foru Diputazioaren erantzuna (2. or.).
- Galdera, Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Departamentuko aurrekontuek eta egitura organikoak 2008, 2009, 2010 eta 2011n izandako bilakaerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, zergak Nafarroan ordaindu zituzten pertsona fisikoen kopuruaren igoerari buruzkoa, Gipuzkoan ondarearen gaineko zerga mantentzearen ondorioz, Nafarroan kendu egin baitzen. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, 2012ko dirubilketari buruzkoa, baldin eta ondarearen gaineko zergaren eredia berreskuratu izan balitz. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, gastu-mugaren zenbatekoak 2000tik 2013ra izandako bilakaerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak langile kopuruaren bilakaerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, men ez egitea eta eraso egitea leporatuta Foruzaingoak Larragan gazte bat atxilotu zuela-eta, gertakari horren inguruabarrei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak 2012an Moderna Fundazioari eginiko ekarpenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako 500 eta 2.000 arteko biztanle kopurua duten udalei buruzko fiskalizazio txostena, 2011ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina (9. or.).

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, jakitekoa Foruzaingoaren arduradunak nola izan zezakeen zenbait parlamentarik beren bulegoetan 24 orduz egoteari buruz hartutako erabakiaren berri, erabaki hori jakinarazi aurretik.****FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Txentxo Jiménez Hervás jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera zen jakitekoa Foruzaingoaren arduradunak nola izan zezakeen zenbait parlamentarik beren bulegoetan 24 orduz egoteari buruz hartutako erabakiaren berri, erabaki hori jakinarazi aurretik, eta argitaratu zen 2012ko irailaren 11ko 71. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko urriaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervás jaunak parlamentari batzuek beren bulegoetan 24 orduz gelditzeko hartutako erabakia hartu eta haren berri eman aurretik Foruzaingoaren arduradunak hala gertatuko zela nolatan jakin ahal izan zuen argitzeko eskatutako informazioari dagokionez (8-12/PES-00120), honako hau jakinarazi du Lehen-

dakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko kontseilariak:

Parlamentuan bertan egindako iruzkinetatik ondorioztatu zuen Foruzaingoak litekeena zela abuztuaren 24an egoitza haren barruan ekintzaren bat egiteko asmoa izatea; zehatz adierazi gabe itxialdia zela, bulegoetan luze gelditzeko edo bestelako ekintzaren bat, alegia.

Arrazoi hori zela medio, areagotu egin zen poliziaren presentzia, baimendu gabeko ekintzarik egin zedin eragozteko, nahiz eta une hartan ez jakin ekintzaren bat egongo zen edo zer-nolako ekintza izango zen.

Foruzaingoak sekula ez du egiten legez kanpoko kontrolik. Entzuketaren bat egitekotan, aldeztu aurretik epailearen baimena eskuratu eta baimen hori oinarri hartuta egiten dira. Aztergai dugun kasuan ez zen izan inolako entzuketarik edo gisa horretakorik.

Iruñean, 2012ko urriaren 1ean

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko kontseilaria: Javier Morrás Iturmendi



**ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak Gipuzkoan ondarearen zergari eutsi izanaren eta Nafarroan zerga hori ezabatu izanaren ondorioz zergak Nafarroan ordaindu zituzten pertsona fisikoen kopurua-  
ren igoerari buruz eta bilketaren igoera horren zenbatekoari buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES-000118), hau erantzun du Nafarroako Gobernuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Kontseilariak:

Nafarroako zerga ogasunaren erroldetan eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren (PFEZ) aitortpenen erregistroetan eskuragarri dagoen informazioaren arabera:

1. 434 pertsona fisikok aurkeztu zuten PFEZaren aitortpena Gipuzkoan 2007ko zergaldian eta Nafarroan 2008ko zergaldian.

2. Pertsona fisiko horien aitortpenetan 2008ko zergaldiko PFEZaren likidazio-oinarriaren guztizko zenbateko metatua, 526 laukia, eta kuota osoarena, 528 laukia, 8.761.022,64 eurokoa eta 2.023.635,50 eurokoa izan ziren, hurrenez hurren.

Informazioa sistematizatuta dagoen moduan, ezin jakin daiteke, modu agregatuan, pertsona horiek beren ohiko bizitokia zergatik aldatu zuten eta, beraz, zergatik ordaindu zituzten zergak Nafarroan 2008ko zergaldian eta Gipuzkoan aurreko zergaldian.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko urriaren 2an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

---

## **Galdera, 2012ko dirubilketari buruzkoa, baldin eta ondarearen gaineko zergaren eredia berreskuratu izan balitz.**

**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera zen 2012ko dirubilketari buruzkoa, baldin eta ondarearen gaineko zergaren eredia berreskuratu izan balitz, eta 2012ko irailaren 11ko 71. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko urriaren 4 an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak ondarearen zergaren eredia berreskuratu izan balitz 2012an

bilduko zen diruari buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES-000119), hau erantzun du Nafarroako Gobernuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Kontseilariak:

2007-2011 zergaldietako ondarearen zergaren aitortpenen erregistroetako datuen arabera, 2007ko zergaldian indarrean zegoen araudia ezarri izan balitz, 2011ko zergaldian 64.128.918,85 euroko kuota jaso izango zatekeen, kalkuluen arabera.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko urriaren 2an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

---

## Galdera, gastu-mugaren zenbatekoak 2000tik 2013ra izandako bilakaerari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana Beltrán Villalba andreak gastu-mugaren zenbatekoak 2000tik 2013ra izandako bilakaerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2012ko irailaren 17ko 72. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### ERANTZUNA

Grupo Parlamentario Popular parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Beltrán Villaba andreak aurrekontuko diru-sarreraren eta gastuen bilakaerari buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (8-12/PES-124), hau erantzun du Nafarroako Gobernuak Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Kontseilariak:

Hauxe izan da 2000. eta 2013. urteen arteko gastuaren goreneko zenbatekoen bilakaera (milioi eurotan):

Urtea	Gastu ez-finantzarioaren muga	Gobernu-akordioaren arabera gastuen muga	Aurrekontu legearen onartua
2013	3.384,49		
2012	3.711,00	3.733,00	3.837,72
2011	4.161,42	4.184,36	4.188,28
2010		3.951,30	4.409,28
2009		3.718,81	4.301,76
2008		3.867,50	4.287,33
2007		3.509,71	3.901,33
2006		3.100,04	3.380,17
2005		2.900,27	3.154,22
2004		2.772,13	2.789,23
2003		aurrekontu luzatua	
2002		aurrekontu luzatua	
2001			2.371,14
2000			2.149,66

Zergen eta tasen ondoriozko diru-sarreraren zenbatekoaren eta langile-gastuen zenbatekoaren bilakaerari dagokienez, Aurrekontu Orokorretako diru-sarreraren eta gastuen likidazioaren laburpenean adierazita daude; laburpen hori Parlamentuak onartzen dituen ekitaldi ekonomiko bakoitzeko Kontu Orokorretan agertzen da, eta Nafarroako Atarian argitaratuta daude 2005az geroztikoak. 2012. urteari dagokionez, datuak hiru hilabetez behin igortzen zaizkio Parlamentuari, eta hilabetez hilabete argitaratzen dira Nafarroako Atarian.

2000-2011 aldiari buruz eskatutako datuak hauek dira, Kontu Orokorretan agertzen diren moduan (\*).

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko irailaren 28an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

(Oharra: Aipatutako datuak eskuragarri dituzte foru parlamentariak, Parlamentuaren kudeaketarako Ágora sisteman).

## Galdera, Nafarroako Gobernuko langile kopuruaren bilakaerari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eloy Villanueva Cruz jaunak Nafarroako Gobernuko langile kopuruaren bilakaerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2012ko irailaren 17ko 72. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko urriaren 8an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### ERANTZUNA

Grupo Popular parlamentu-taldeko foru parlamentari Eloy Villanueva Cruz jaunak Nafarroako

Gobernuaren langileen kopuruaren bilakaerari buruz egindako informazio-eskariari dagokionez (8-12/PES-00125), honako informazio hau eman du Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko kontseilariak:

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen enplegatuen kopuruak, plantilla organikoaren ondoriozkoak, 2000ko abenduaren 31tik 2011ko abenduaren 31ra, langile funtzionarioak, estatutupekoak, lan-kontratuko finkoak eta behin-behinekoak berezita.

Iruñean, 2012ko urriaren 5ean

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko kontseilaria: Javier Morrás Iturmendi

Urtea	Behin-behinekoak	Funtzionarioak	Estatutupekoak	Lan-kontratuko finkoak	Guztira
2000	117	14.381	537	211	15.246
2001	123	14.665	531	203	15.522
2002	125	14.754	528	179	15.586
2003	140	15.026	522	181	15.869
2004	141	15.362	348	158	16.009
2005	137	15.121	319	153	15.730
2006	136	15.018	327	152	15.633
2007	153	15.386	304	135	15.978
2008	159	16.440	298	138	17.035
2009	152	17.048	313	113	17.626
2010	147	18.068	293	95	18.603
2011	115	18.152	294	128	18.689

## **Galdera, men ez egitea eta eraso egitea leporatuta Foruzaingoak Larragan gazte bat atxilotu zuela-eta, gertakari horren inguruabarrei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera zen men ez egitea eta eraso egitea leporatuta Foruzaingoak Larragan gazte bat atxilotu zuela-eta, gertakari horren inguruabarrei buruzkoa, eta 2012ko irailaren 17ko 72. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko urriaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak Larragako gazte baten atxiloketaren inguruabarrei buruz eskatutako informazioari dagokionez (8-12/PES-00127), hau erantzun dio Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko kontseilariak:

#### 1. Aurrekariak

Atxiloketa eragin zuen auzia instrukzio-fasean dago, Tafallako Epaitegian.

Abuztuaren 6ko goizeko 05:10ean, Larragako Leringo Errepidea kalean, 3. zenbakian, Ibiza ostatuaren parean, atxilotutako pertsonak, ustez, eta beste zenbait lagunek (30-40 lagun), ostatuaren pareko saltoki bateko hesiaren kontra eraman eta inguratu egin zituzten bi foru-polizia, bultzaka eta irainka, eta atxilotutako pertsonak irainak esan eta bultzakadak eman zizkien, baita garagardo-

botila batekin mehatxu egin ere, harik eta poliziak kendu zion arte.

Ustezko ekintza hori delitua da, agintearen agentearen kontrako eraso eta errespetu-falta, hain zuzen ere.

#### 2. Zioak

Atxiloketaren arrazoia hau da: uste agintearen agentearen kontrako eraso eta errespetu-falta delitua egin izanaren akusazioa.

#### 3. Prozedura

Aurreko abuztuaren 9an, Foruzaingoak gazte bat atxilotu zuen, agintearen agentearen kontrako eraso eta errespetu-falta leporatuta.

Atxiloketa eta eskubideen lehen irakurketa abuztuaren 9ko 16:10ean egin ziren, Larragan.

Atxiloketaren unean, gaztearen amari eman zitzaion atxiloketaren berri.

16:25ean, agente ikelariak zaintzako epaileari jakinarazi zizkion atxiloketa bera eta hura eragin zuten gertaerak.

17:00etan berriro jakinarazi zitzaizkion atxilotuari atxiloketaren arrazoia eta bere eskubideak, Tafallako Foruzaingoaren egoitzan.

Atxilotuak A. I. O. eskatu zuen abokatu gisa. Abokatuaren aurrean berriro eskubideak irakurri zitzaizkiolarik, berretsi egin zuen Eskubideak Irakurtzeko Aktan esandakoa, eta adierazi zuen epailearen aurrean deklaratu zuela.

Iruñean, 2012ko urriaren 5ean

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko kontseilaria: Javier Morrás Iturmendi

## **Galdera, Nafarroako Gobernuak 2012an Moderna Fundazioari eginiko ekarpenari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana Beltrán Villalba andreak Nafarroako Gobernuak 2012an Moderna Fundazioari eginiko ekarpenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2012ko irailaren 17ko 72. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

"Partido Popular de Navarra" parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Beltrán Villaba andreak Nafarroako Gobernuak 2012an Moderna Fundazioari egindako diru-ekarpenari buruz eta Nafarroako Gobernuak ekitaldi berean fundazio horren aurrekontuari egindako ekarpenaren ehunekoari buruz irailaren 10ean erregistratu eta idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES-123), hau erantzun du Nafarroako Gobernuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak:

Moderna plana abian jartzeko, gauzatzeko eta haren jarraipena egiteko, Moderna Fundazioak bere langileen eta egituraren gastuak estaltzeko finantzaketa behar du, baita plana bide onetik

aurrera eramateko beharrezko jarduerak garatzeko funtsak ere. Nafarroako Parlamentuak 2010eko urriaren 1ean goian aipatutako planarekin batera onartutako kudeaketa-ereduari jarraituz, finantzaketa hori funts publiko nahiz pribatuetatik lortuko duela aurreikusi da. Edonola ere, hasieran, sendotu artean, bultzada publikoa izango du, batik bat. Xede horrekin, hain zuzen ere, Moderna Fundazioa onuradun duten bi partida nominatibo hornitu ziren 2012rako (transferentzia arruntena eta kapital-transferentzia). Gaur egun, Nafarroako Gobernuak diru-laguntza bat emateko konpromisoa du, gehienez ere 796.588 euroko zenbatekoa izango duena; laguntza horren xedea izango da hitzartutako eginkizunak gauzatzearen eraginez Fundazioak jasandako balizko aurrekontu-defizita estaltzea.

2., 3. eta 4. galderei dagokienez, jakinarazi beharra dago Nafarroako Gobernuak ez duela horiei buruzko erantzunik emateko eskumenik, Fundazioa izaera pribatuko eta nortasun juridiko propioko erakundea den heinean; hari egin beharoko litzaizkioke galdera horiek.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko urriaren 8an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu



---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**Nafarroako 500 eta 2.000 arteko biztanle kopurua duten udalei buruzko fiskalizazio txostena, 2011ko ekitaldiko, Kontuen Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 22an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako Nafarroako 500 eta 2.000 arteko biztanle kopurua duten udalei buruzko fiskalizazio txostena, 2011ko ekitaldiko, ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2012ko urriaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Nafarroako 500 eta 2.000 arteko biztanle kopurua duten udalei buruzko fiskalizazio txostena, 2011ko ekitaldiko, Kontuen Ganberak egina**

**AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (9. or.).
- II. Helburuak (10. or.).
- III. Norainokoa eta mugak (10. or.).
  - III.1. Norainokoa (10. or.).
  - III.2. Mugak (11. or.).
- IV. Ondorio orokorrak (11. or.).
  - IV.1. 500 eta 2.000 biztanle bitarteko Nafarroako Toki Azpisektorea (11. or.).
  - IV.2. Bidalitako galdetegiaren ondorioak (12. or.).
  - IV.3. Azpisektore horren aurrekontuari buruzko informazio orokorra (18. or.).
  - IV.4. Azpisektore horren informazio sozioekonomikoa (21. or.).

V. Nafarroako Toki Administrazioa berrantolatze-ko foru legearen aurreproiektua (23. or.).

Eranskina. Udalen biztanleria 2011ko urtarrilaren 1ean (24. or.).

Gehigarriak. Udalen fitxak.

(Oharra: Aipatutako eranskinak Foru Parlamentariak Ganberaren Zerbitzu Orokorraren bulegoetan eta honako webgune honetan eskura ditzakete:

[www.cfnavarra.es/camara.comptos](http://www.cfnavarra.es/camara.comptos)).

**I. SARRERA**

Nafarroako Kontuen Ganberaren 2011-2016 urteetarako Plan Estrategikoak Toki Sektore Publikoaren gaineko hainbat jardura hartzen zituen, era guztietako erakundeetan. Esparru horretan, 2011. urteko azaroan Kontuen Ganberak txosten bat egin zuen 500 biztanle baino gutxiago dituzten udalerriei buruz, erakunde horiei bidalitako galdetegi baten emaitzekin eta Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusian eta beste estatistika iturri batzuetan lortutako aurrekontuei eta egoera sozioekonomikoari buruzko informazioarekin.

Ildo estrategiko horri jarraitzeko asmoz, 2012. urterako Kontuen Ganberaren Fiskalizazio Programaren barruan 500 eta 2.000 biztanle bitarteko Nafarroako udalerriei buruzko txosten edo azterketa bat sartu da (2011ko ekitaldia).

Erroldaren arabera, 63.706 biztanle (Nafarroako biztanleriaren ehuneko 9,9) 63 udaletan bantzen diren entitate horietakoak dira, eta udal horiek Nafarroako udal guztien ehuneko 23.

Landa-lana 2012ko ekainetik irailera bitartean egin zen, ikuskaritzako teknikari batez, Nafarroako Unibertsitate Publikoko bekadun batez eta auditore batez osatutako taldearen bitartez. Gainera, Kontuen Ganberako zerbitzu informatiko, juridiko eta administratiboan laguntza izan da.

Txostenak bost atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean azaltzen da zer helburu bilatzen diren; hirugarrenean, lanaren norainokoa eta aplikatutako metodologia; eta laugarrenean, lortutako ondorioak azaltzen dira. Azkenik, bosgarren atalean, hainbat gogoeta egiten dira Nafarroako udal-mapa berrantolatzekeo prozesuaren inguruan.

Txostenak eranskin bat du, udal-erri horien zerrendarekin eta horiek 2011ko urtarrilaren 1ean zuten biztanleriarekin.

Bestalde, udal horietako bakoitzak fitxa bat du, haren aurrekontuari eta egoera sozioekonomikoari buruzko informazio nagusiarekin.

Eskerrak eman nahi dizkiegu aztertutako udal-erri langileei eta Toki Administrazio-ko Zuzendaritza Nagusiari lan hau egiteko emandako laguntzarengatik.

## II. HELBURUAK

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari eta Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, 500 eta 2.000 biztanle bitartean dituzten Nafarroako Udalei buruzko txosten bat egin da.

Txosten horren bitartez honako helburu hauek lortu nahi dira:

a) 500 eta 2.000 biztanle bitarteko Nafarroako udalen egoera sozioekonomikoari eta aurrekontu-egoerari buruzko ikuspegi orokorra lortzea.

b) Udal horietako kudeaketa-arazo nagusiak hautematea, eta horien egoera finantzarioaren bilakaera erakustea eta bertako finantzek gaur egungo egoera ekonomiko orokorrera egindako egokitzapenak aztertzea.

c) Parlamentuari, Nafarroako Administrazio Publikoari eta jendeari, oro har, udal-erakunde multzo horien arazoaren ikuspegi eskaintzea.

d) Kontuen Ganberak Nafarroako toki-entitateetan duen presentziari eta jarduerari eustea, 2011-2016 Plan Estrategikoaren arabera.

## III. NORAINOKOA ETA MUGAK

### III.1. NORAINOKOA

Lanaren norainokoa honako hauek osatu dute:

a) 63 toki-entitateei bidalitako galdetegia. Bertan 57 galdera egiten zitzaizkien, horietatik 51 itxiak eta 6 irekiak.

Galdera itxiak kudeaketa ekonomikoaren eta finantza-egoeraren hainbat alderdiri buruzkoak dira, eta alor honetan bilduta daude:

- Alderdi orokorrak eta zerbitzuak.
- Langileak.
- Zerga bidezko diru-sarreraren kudeaketa.
- Diruzaintza.
- Kontratazio administratiboa.
- Toki-sektore publikoaren osaera.
- Hirigintzaren kudeaketa.
- Informazioa eta finantza-egoera.

Galdera irekien bitartez ezagutu nahi izan ziren alde batetik arduradunek beren udal-erri arazoari buruz zuten iritzia, eta, beste aldetik, botere publikoek arazo horiek konpontzeko har ditzaketen neurriak. Bestalde, entitate bakoitzaren aurrekontua gaur egungo krisi ekonomikora nola egokitu den galdetu zaie.

Gai horri dagokionez, aipatu beharra dago 63 toki-entitateek erantzun diotela bidalitako galdetegiari.

b) Azpisektore horren aurrekontuari eta egoera sozioekonomikoari buruzko askotariko informazioa, Toki Administrazio-ko Zuzendaritza Orokorrak eta/edo Udalek berek emana, aztertutako udal-erri 2008-2011 epeko datu ekonomikoak, funtzionalak eta aurrekontu-ratioei buruzkoak.

Informazio horrekin modu orokorrean aztertu da azterketaren helburu diren toki-entitateen azpisektorea eta horien bilakaera. Gainera, udal bakoitzeko fitxa bat osatu da (txosten honen eranskin gisa erantsen dena) aurrekontuaren adierazle nagusiekin, 2008-2011 tartean izan duten bilakaerarekin eta atxikitzen zaion eremu geografikoaren batez bestekoarekin egindako konparazioarekin, Nafarroako osasun-eremuen arabera, eta baita aztertutako udalen batez bestekoarekin ere.

Fitxa hori udal-erri bakoitzari buruzko hainbat datu sozioekonomikorekin osatzen da: demografia, langabezia, sektore ekonomikoak, instalazioak eta zerbitzuak eta parte-hartze politikoa.

Denboraren eremuari dagokionez, kudeaketa-erri dagozkion alderdiek 2011ko ekitaldian jartzen dute arreta. Egoera finantzarioari dagokionez, 2008tik 2011ra bitartean izan duen bilakaera aztertzen da.

Metodologiari dagokionez, Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatze-ko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren Fiskalizazio Eskuliburuan garatutako sektore publi-

koaren auditoriari buruzko printzipioak eta arauak aplikatu dira, eta helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun prozedura tekniko guztiak bildu dira. Galdetegiaren teknika da lan honetarako erabili den tresna nagusia.

Egindako lanaren izaera kontuan hartuta eta ondorioak modu orokorrean aurkezten direnez, txosten hau izapidetzerakoan ez dira aplikatu Kontuen Ganbera honen araudian eztabaida teknikorako eta alegazioetarako aurreikusita dauden faseak.

### III.2. MUGAK

Honako hauek izan dira txosten hau egiteko prozesuari eragin dioten mugak:

- Tokiko Administrazioak aurrekontuei buruz emandako informazioa 51 udalerriri dagokio, hau da, entitateen ehuneko 81, hain zuzen ere, txosten hau idatzi zenean informazio hori bidalita zutenak.
- Toki-entitateek eta Toki Administrazioaren Zuzendaritza Orokorrak emandako datuekin lan egin da zuzenean, emandako informazioaren egi-

azkotasuna berrikusteko edo aztertzekeo prozesurik gabe.

### IV. ONDORIO OROKORRAK

Ondoren, egindako lanetik ateratako ondorio nagusiak azalduko dira.

#### IV.1. 500 ETA 2.000 BIZTANLE BITARTEKO NAFARROAKO TOKI AZPISEKTOREA

2011n, tokiko azpisektore hori 63 udalek osatzen zuten, hau da, Nafarroako udal guztien ehuneko 23; ehuneko hori, hortaz, Estatuko udal multzoaren barruan era horretako entitateek hartzen duten ehuneko 25aren antzekoa da.

Udal horien artetik, 17 udal 155 kontzejuz osatuta daude, hau da, Nafarroako kontzejuen ehuneko 44.

Entitate horiek 63.706 biztanle dituzte guztira, hau da, Nafarroako biztanleria osoaren ehuneko 9,92. Biztanleria horren barruan, 17.539 biztanle aurreko kontzejuetan errolatuta daude.

Biztanle-tarteen arabera, udalerririk horiek eskala hauen arabera sailkatzen dira:

Biztanle-tartea	Udal-kopurua	Guztizkoaren gainera portzentajea	Biztanleria	Guztizkoaren gainera portzentajea
500-600	9	14	4.935	8
600-700	9	14	5.875	9
700-800	6	10	4.453	7
800-900	5	8	4.188	7
900-1000	8	13	7.524	12
1000-1100	6	10	6.469	10
1100-1200	3	5	3.434	5
1200-1300	3	5	3.751	6
1300-1400	2	3	2.840	4
1400-1500	2	3	2.966	5
1500-1600	1	2	1.546	2
1600-1700	4	6	6.705	11
1700-1800	4	6	7.088	11
1800-2000	1	2	1.932	3
Guztira	63	100	63.706	100

Ikus daitekeenez, Udal horien ehuneko 69ek 1.100 biztanle baino gutxiago dituzte, eta azpisektore osoaren biztanleriaren ehuneko 53 osatzen dute.

Udalerririk batez besteko biztanle kopurua 1.011 biztanlekoa da, nahiz eta alde handia dagoen aztertutako udal guztien artean.

Eremu geografikoen arabera banaketari dagokionez, Nafarroako gizarte-osasun arloko zonifikazioaren arabera, udalerrri horiek eremu/zona hauetan banatzen dira:

Eremua	Udal-kopurua	Portzentajea
Lizarra	19	30,2
Ipar-mendebaldea	17	26,9
Tafalla	11	17,5
Iruñea	8	12,7
Ipar-ekialdea	5	7,9
Tutera	3	4,8
Guztira	63	100

Hau da, Lizarrako eremuan eta Ipar-mendebaldeko eremuan pilotzen dira nagusiki; era berean, aipagarria da horietako zein udalerrri gutxi dauden Ipar-ekialdeko eta Tuterako eremuetan.

Udal horietako biztanleriaren bilakaerak gora egin du 2007 eta 2011 urteen bitartean eta 2.225 biztanletan handitu da, kopuru absolutuetan, hau da, ehuneko 3,6 hazi da; Nafarroan oro har ehuneko seiko haziera izan du.

Aztertutako udalen ehuneko 67tan biztanleriaren hazkundea Nafarroan 2007 eta 2011 bitartean izan dena baino txikiagoa izan da, eta aztertutako entitateen ehuneko 40tan negatiboa izan da. Udallerrien ehuneko zortzitan Nafarroako ehunekoaren antzera handitu zen biztanleria eta ehuneko 25etan handiagoa izan da; Ipar-mendebaldeko eta Iruñeko eremuetan izan dira hazkunde nagusiak.

2011n, eta azterketaren helburu ziren entitateen ehuneko 81en aurrekontuetako informazioa jaso ondoren Toki Administrazioaren eskutik, udal horiek 62,38 eta 61,66 milioi euro gastatu eta sartu dituzte, hurrenez hurren. Biztanleko gastua 1.226 eurokoa da, eta diru-sarrerak, berriz, 1.212 eurokoak.

#### IV.2. BIDLITAKO GALDETEGIAREN ONDORIOAK

Lehenik, azpimarratu beharra dago azterketa gai diren entitateen ahalegina eta lankidetzatza, denek erantzun baitzieten bidalitako galdetegiari.

Hona hemen ateratako ondorio nagusiak, bi azpitaletan banatuta: galdetegia osatzen zuten galdera itxiei dagozkienak eta galdera irekiei dagozkienak.

#### IV.2.1. Galdera itxiei buruzko ondorioak

Lortutako emaitzak galdetegia banatutako alorren arabera aurkezten dira. Zortzi alorretatik, lehenengo zapien emaitzak aztertzen dira, eta zortzigarrenaren azterketa, informazioa eta finantza-egoera IV.3. epigraferako utzi da, bertan deskribatzen baita azpisektore horren aurrekontuari buruzko informazioa.

##### 1. Alderdi orokorrak eta zerbitzuak

- Herritarrek udal-bulegoen bitartez jotzen dute udalera, lehenik, eta telefono bidez, bigarrenik.

- Udalen ehuneko 94k webgunea du, entitate horien erdietan izapideak egin litezke eta ehuneko 59an agiri administratiboak har daitezke baliabide horren bitartez.

- Kontularitzari dagokion kudeaketa soilik udaleko langileek egiten dute udalen ehuneko 73an; ehuneko hiruan, aldiz, kanpoko langileek baino ez dute egiten.

- Udalen ehuneko 71ek ekitaldia hasi eta gero onartu zituzten 2011ko aurrekontuak, eta ehuneko 89k indarrean den legediak adierazitako epeen barruan onartu dituzte 2010eko kontu orokorrak.

- Informatizatuta dauden kudeaketa-prozesu nagusiak honakoak dira:

Prozesuak	Portzentajea udalak
Zerga-zerrendak egitea	100
Kontularitza	100
Diru-bilketaren kudeaketa	98
Nominak	33

- Ehuneko 43 udalek idazkari/kontu-hartzaile postua partekatzen dute beren artean edo erreferentziazko beste batekin. Ehuneko hori 21ekoa da administrazio bulegariaren lanpostuarentzat.

• Udallerri guztiak mankomunitate edo elkarte batean sartuta daude, zerbitzuren bat emateko. Mankomunitateen bitartez ematen diren zerbitzu nagusiak honakoak dira:

Bateratutako zerbitzuak	Portzentajea udalak
Oinarrizko gizarte-zerbitzuak	100
Hiri-hondakinak	94
Uraren hornikuntza eta estolderia	87
Kirol arloa	32

Langileak	Guztira	Arduraldi osoa	Arduraldi partziala
Idazkaria eta/edo kontu-hartzailea	65	54	11
Administrazioko bulegaria	50	38	12
Administrari laguntzailea	49	34	15
Zerbitzu ugari	86	81	5
Udaltzainak	13	13	0
Kultura-kirol koordinatzailea	10	7	3
Bestelakoak	94	32	62
Guztira	367	259	108

Hau da, aztertutako udalek 367 langile dituzte guztira: entitateko 5,83 batez beste. Langile horien artean, ehuneko 71k arduraldi osoa dute udalean, eta ehuneko 29k beste arduraldi partziala dute.

Udalen ehuneko 43k beste udal batzuekin partekatzen dituzte idazkaria/kontu-hartzailea, eta ehuneko hori 21ekoa da administrazioko langilearen kasuan.

• Udalarekin duten lotura juridikoari erreparatuz gero, aurreko langile horiek era honetara banatzen dira, ehunekotan:

Lotura	Portzentajea
Funtzionarioa	33
Lan-kontratu finkoa	20
Aldi baterako lan-kontratua	31
Administrazio-kontratua	16
Guztira	100

• Mailen arabera, langile horiek honela biltzen dira:

Mailak	Portzentajea
A	17
B	9
C	22
D	36
E	16
Guztira	100

• Udalen 69k du bere jabetzako ondasunen inbentarioa. Inbentarioa dutenen artean, bost udalek baino ez dute 2006ko ekitaldiaz gero onartu.

## 2. Langileak.

• Udal horiek 2011ko abenduaren 31n honako langile hauek zituzten (taulan arduraldia osoa edo partziala duten zehazten da):

• Udalen ehuneko 63k ekitaldia hasi eta gero onartzen dituzte langileen plantilla organikoak, eta udalen ehuneko seik ez diote erantzun plantilla hori onartu duten edo ez.

• Nominak ehuneko 71 kasutan kanpoan egiten dira.

• Ia udal guztiek aplikatu zuten 2011n udal langileen ordainsariak izozteko erabakia.

• Udal horietako zinegotziei dagokienez, bederatzid udalbiltzarkidek jasotzen dute arduraldi osoko ordainsaria; 43 udalbiltzarkidek arduraldi partzialari dagokiona kobratzen dute.

**3. Zerga bidezko diru-sarreraren eta beste diru-sarrera batzuen kudeaketa**

• Udal guztiek indarrean den legediak adierazten dituen derrigorrezko zergak ordainarazten dituzte.

• Udalen ehuneko 75ek 2006. urtearen aurrekoa dute katastroko balioen eguneratzea.

• Taula honetan azaltzen dira zerga nagusietan aplikatutako batez besteko tipoak eta indarrean den araudiak kontuan hartzen duen aukerarekiko konparazioa:

	2/1995 FL	500-2.000 biztanleko udalen batez bestekoa
Lurraldeko kontribuzioa	0,10 eta 0,50 bitarte	Landa-kontribuzioa 0,81 Hiri-kontribuzioa 0,27
JEZ	1 eta 1,4 bitarte	1,23
Lurren balioaren igoera:		
Gaurkotzearen koefizientea	2tik 3,8ra	2,37
Karga-tasa	8 eta 20 bitarte	11,66
EIOZ	2 eta 5 bitarte	3,50

Hau da, tipoen batez bestekoa legeak aurreikusitako erdiko-beheko tartean dago. 36 udalek onartu zituzten tipo bereziak hiriko eta landako lurralde-kontribuziorako, eta, hortaz, ez daude egokituta 2006. urteaz geroztik indarrean den Toki Ogasunen 2/1995 Foru Legearen 139. artikuluan ezarritako tipo bakarrera. 20/2005 Foru Legeak zergatipoa hiriko eta landako lurralde-kontribuziorako bereiztea onartzen badu ere, baldin eta baloraziorako txosten berri bat izapidetzen ari bada, bi udalek 2010ean eguneratu zituzten eta dualtasun horri eusten diote.

Tipo horiek udalen ehuneko 83tan onartu dira, ekitaldia hasi aurretik.

- Agente exekutiboari dagozkion lanak, kasuen ehuneko 87an, Udaletik kanpoko langileek egiten dituzte; udalen ehuneko 6an, berriz, ez du inork egiten.

- Diru-sarreretan azpimarratzen dugu, bestalde, udalen ondarearen ustiapenak aitortutako eskubideak, honako hauetatik etortzen direnak, nagusiki:

Kontzeptua	Diru-sarrerak
Herri-aprobetxamenduak	2.853.072
Higiezinaren alokairua	482.934
Harrobien ustiapena	440.773
Energiaren salmenta	319.394
Kontzesio administratiboak	279.597
Ehiza- eta arrantza-barrutiak	239.280

#### 4. Diruzaintzaren kudeaketa

- Diruzaintzaren kudeaketari dagokionez, udalen ehuneko 59an udaleko langileek berek egiten dute, eta ehuneko 31n banketxe batek.

- Ordainketetarako prozedura ohikoenak banketxe bidezko transferentzian eta elektronikoetan biltzen dira, ordainketen ehuneko 54 inguru, eta banku-helbideratzeetan ehuneko 35.

- Kobrantzei dagokienez, ohikoena banketxe bidezko helbideratzea da, kobrantza guztien ehuneko 77, gutxi gorabehera.

- Udalen ehuneko 52tan, funtsen erabilera batera egiten da, eta udalen ehuneko 46tan, aldiz, sinadura bakar bat behar da.

#### 5. Kontratazio administratiboa.

- 2010ean, udal horiek 107 obra-kontratu adjudikatu dituzte, 64 laguntza-kontratu eta 44 hornidura-kontratu, prozedura hauen bitartez:

	Obrak		Laguntza		Hornidurak	
	Kopurua	Zenbatekoa	Kopurua	Zenbatekoa	Kopurua	Zenbatekoa
Irekia	18	6.449.424	10	1.118.400	3	118.015
Mugatua	1	24.414	1	2.124	0	0
Hitzartua	88	6.520.092	53	837.040	41	398.521
Guztira	107	12.993.930	64	1.957.564	44	516.535

Hau da, udal horiek 15,47 milioiko gastua kontratatu dute guztira, edo gauza bera dena, 245.524 euroko batez bestekoa udaleko. Bai kontratu kopuruari bai zenbatekoari dagokionez, prozedura hitzartua da gehien erabili dena, nahiz eta prozedura ireki bidezkoaren zenbatekoa hitzartu baino 69.814 euro txikiagoa den.

Obra-kontratuek administrazioak kontratazioan duen guztizko gastuaren ehuneko 84 azaltzen

dute; aldiz, hornidura-kontratuek ehuneko hiru baino ez dituzte hartzen.

#### 6. Toki Sektore Publikoa

- Udalen hamabik osatu dute bitarteko erakunde bat (Erakunde Autonomoak, merkataritza-sozietateak edo fundazioak) zerbitzuak emateko, taula honen arabera:

Udala	Bitarteko erakundea	Jarduera	Enplegatuak 2011-XII-31n
Allo	Sociedad urbanística municipal, S.L.U	Hirigintza	0
Arbizu	Askalats Arbizu S.L.	Garapen ekonom., turist. eta soziala	12
Los Arcos	Asnasel Sostenibilidad Energética, SL	Eraginkortasun energetikoa	0
Artaxoa	Musika-eskola Zaharren egoitza	Musika-irakaskuntza Geriatrico zaintzak	8 27
Berbintzana	Musika Eskola Patronatua	Musika-irakaskuntza	0
Oltza Zendea	Musika Eskola Patronatua	Musika-irakaskuntza	11
Doneztebe	Agorreta Udal Musika Patronatua	Musika-irakaskuntza	8
Etxeberri	Denak Bat Erakunde Autonomoa	Kirol., aisi. eta kultur. jard. u.	0
Lekunberri	Udal Musika Eskola	Musika-irakaskuntza	21
Irunberri	Musika Eskola Patronatua	Musika-irakaskuntza	8
Miranda Arga	Org. Aut. Resid. Ancianos Virgen del Castillo	Geriatrico zaintzak	22
Olatzagutia	Musika Eskola Patronatua	Musika-irakaskuntza	4

Bitarteko entitate horietan 121 langilek lan egiten dute, guztira.

#### 7. Hirigintza

- Udalen 60ek udal-plan orokor bat dute eta ehuneko 40k arau subsidiarioak.
- Hirigintzaren alorreko kudeaketa toki-erakundearen beraren baliabideekin egiten da kasu

gehienetan -udalen ehuneko 71-. Gainerakoek kanpoko baliabideekin egiten dute, laguntza-kontratuaren bitartez bereziki.

- Udalen ehuneko 89k ez dute arauz dagokien Lurraren Udal Ondarearen erregistroa osatu.
- Hirigintzako jarduerari dagokienez, taula honetan azaltzen dira egindako eragiketa nagusiak eta zenbat udalek egin dituzten:

Jarduera	Udal-kopurua
Hirigintzako hitzarmenak partikularrekin	17
Trukeak	11
Udalaren lurzoru-ondareko ondasunen besterentzea	6
Herri-ondareen salmenta eta/edo trukea	6
Hirigintzako hitzarmenak beste herri-administrazioekin	4

Hirigintza-aprobetxamenduen ondorioz, udal horiek 80.994 euro jaso dituzte, guztira.

#### IV.2.2. Galdera irekiei egindako erantzunen laburpena

Galdetegiko galdera irekiei dagokienez, udalek beren erantzunetan aipatutako alderdi hauek azpimarratzen ditugu:

##### A) Udal horien kudeaketa-arazo nagusiak

- Udalen ehuneko 30 inguruk aipatzen du ez duela baliabiderik, ez langileei dagokienez ez baliabide material eta teknikoei dagokienez. Horri lotuta, udalen batek honako hauek aipatu ditu: zenbait langileren prestakuntza ezak zaildu egiten du bere lana, idazkari/kontu-hartzaile lanpostuen behin behinekotasuna, langileen artean zeregin jakin batzuk banatuta ez egotea, etab.

- Entitateen ehuneko 30ek uste du diru-sarrera arruntak jaistearen ondoriozko baliabide ekonomiko urritasuna, bereziki zenbat zergari dagokienez –hala nola EIOZ–, garrantziko arazoa dela. Horien artean, ehuneko 11k dio zenbait zerbitzuri eusteko Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzarik ezak edo horiek jasotzeko atzerapenak likidezia-arazoak sortzen diola.

- Aurreko puntuari lotuta, udalen ehuneko 20k dio likidezia eza garrantziko arazoa dela eguneroko kudeaketari dagokionez.

- Udalen 24k azpimarratzen du zein zaila den administrazioaren kudeaketa, izapide administratibo gehiegi dituelako edo zenbait kasutan prozedura arautuak falta direlako, eta horrekin batera herritarren eskakizun-maila altua eta kasuren batean baita administrazio elektronikoaren beharra ere aipatzen da.

- Udalen ehuneko 17k adierazten du zenbait zerbitzu emateak gehiegizko gastuak eragiten dituela eta garestiegiak direla zenbat biztanlerentzat diren kontuan hartuta.

- Ehuneko seik lege-araudia (batez ere hirigintzari dagokiona) eta kontabilitateko araudia arazo bat direla dio; gehiegizkoa dela iruditzen zaie beraiek kudeatzen dituzten udalen ezaugarriak kontuan hartuta.

- Ehuneko bostek aurrekontuetako murrizketei buruzko informazio gabezia aipatzen du, izan ere, iragartzen dituztenerako aurrekontuak onartuta daude, eta horrek hautsi egiten du gastuen eta diru-sarreraren arteko oreka, baldin eta lehenengoak eginda bazeuden, edo eska ditzaketan laguntzei buruzkoa.

- Galdetegiari erantzun diotenen ehuneko hiruk arazo tekniko informatikoak aipatzen ditu.

- Azkenik, beste arazo batzuk aipatzen dira, baina aurrekoak baino ehuneko txikiagoan, hala nola: biztanleria udalerrri konposatuetan sakabanatuta egotea, Nafarroako Gobernuaren mantsotasuna erantzunak emateko, komunikazio-arazoak kontzejuen artean, koordinazio gabezia Nafarroako Gobernuarekin eta aholkularitzakoa haren aldetik, edo lau urteko planen eta beste inbertsio-planen zurruntasuna.

##### B) Kudeaketa hobetzeko proposatutako irtenbideak

- Proposatutako irtenbideetako bat udalei egitura administratibo osoago eta arrazionalago bat ematea izan da. Horretarako, hainbat proposamen egiten dira:

- a) Egin beharreko izapideak bateratzea eta sinplifikatzea.

- b) Araudia malgutzea, logikoagoa eta soilagoa izan dadin eguneroko arazoan aurrean.

- c) Entitate horiei autonomia handiagoa ematea.

- d) Idazkari kontu-hartzaileen plazen behin-behinekotasun egoera konpontzea.

- e) Langileen prestakuntza betetzen duten lanpostuaren benetako premietara egokitzea.

- f) Zerbitzu gehiago elkartzea eta langile gehiago partekatzea.

- Aipatutako beste alderdi bat udalen finantzazio-ereduaren aldaketa izan da, eta iradokizun hauek egin dira:

- a) Nafarroako Gobernuaren diru-sarreretan parte-hartze handiagoa edukitzea.

- b) Montepioren erregimenari lotutako funtzionarioen finantzazioa berrikustea.

- c) Aurretik dagoen epe luzeko zorra berriro finantzatzeko eta diru-sarrera arruntan ehuneko 35etik gorako diruzaintzako aldi baterako premiak jasotzeko baimena ematea.

- d) Tokiko ezarpen-sistema aldatzea, eta bereziki, zergen tasak handitzea.

- e) Entitate horiei autonomia handiagoa ematea.

- Diru-laguntzei dagokienez hainbat alderdi aipatzen dira:

- a) Zenbait zerbitzuren funtzionamendurako diru-laguntzak egonkortzea, etendako zerbitzuak berriro ezartzeko helburuarekin.

- b) Zehaztasun handiagoa Nafarroako Gobernuak emandako diru-laguntzen deialdietan.



- Azkenik, beste irtenbide batzuk ere aipatzen dira, hala nola, politikariek udalerrri handiak ez diren toki-entitateekin inplikazio handiagoa edukitzea, jendearen arretarako ordutegia mugatzea, 012 zerbitzuaren erabilera sustatzea edo teknologia berriak ezartzea.

**C)** Aurrekontuko diru-sarreraren eta gastuen arteko oreka lortzeko neurriak

Araudiak ezartzen dituenaz gainera (oinarrian, langileen ordainsariak murriztea), udal horiek hainbat neurri hartu dituzte beren aurrekontuak orekatzeko helburuarekin. Honako hauek aipatzen ditugu:

- Ohiko gastuei eustea, bereziki oinarrizko zerbitzuei eragiten ez dietenak.

- Aurrekontu “ezkorragoak” osatzea diru-sarrerak erakartzeari dagokionez.

- Derrigorrezkoak ez diren zenbait zerbitzu ezabatzea.

- Hornidura-kontratuak beherantz berrikustea eta berriro negoziatzea.

- Kontrol handiagoa egotea diru-laguntzak emateko orduan.

- Inbertsioetan egiten den gastua mugatzea, osorik finantzatuta daudenetara.

- Diruzaintzako gerakin bateratuaz baliatzea.

- Zorra aurretik amortizatzea, interes handiagorik ez ordaintzeko.

- Diru-bilketarako prozedurak hobetzea.

- Diru-sarrera gehiago lortzea, besteak beste, herri diru-sarrerak hobeto aprobetxatzea, lurralde-aberastasunaren balioespen-txostenak eguneratzea, zerga-tipoak eta tarifak edo ondasunen salmenta handitzea.

#### IV.3. AZPISEKTORE HORREN AURREKONTUARI BURUZKO INFORMAZIO OROKORRA

Taula honetan, txosten hau egiteko unean informazioa genuen 500 eta 2.000 biztanle bitarteko Nafarroako toki-entitateen aurrekontuen 2011ko likidazio metatua erakusten da -63 udaletatik 51-.

Gastuak	Hasierako kreditua	Behin betiko kreditua	Aitortutako betebeharrak	Egindako ordainketak
Langile-gastuak	15.446.393,68	15.578.680,73	14.781.920,06	14.503.343,13
Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	19.123.854,36	19.694.778,88	18.212.635,28	16.641.827,12
Gastu finantzarioak	989.896,83	1.024.311,69	829.258,31	823.516,33
Transferentzia arruntak	5.895.755,38	5.963.184,98	5.326.807,07	4.583.468,61
Inbertsio errealak	24.006.875,54	30.988.980,84	19.029.240,71	14.910.781,00
Kapital-transferentziak	372.909,18	674.135,41	563.155,75	508.243,99
Finantza-aktiboak	680.120,00	717.189,88	717.069,88	717.069,88
Finantza-pasiboak	2.750.703,77	2.807.743,64	2.915.709,00	2.883.167,26
Guztira	69.266.508,74	77.449.006,05	62.375.796,06	55.571.417,32

Diru-sarrerak	Hasierako kreditua	Behin betiko kreditua	Aitortutako eskubideak	Egindako kobrantzak
Zuzeneko zergak	14.427.711,93	14.460.039,31	14.671.843,72	13.611.306,24
Zeharkako zergak	2.873.882,49	2.873.882,49	2.288.996,74	1.869.094,18
Tasak eta bestelako diru-sarrerak	6.706.855,89	6.841.915,41	6.728.806,26	6.134.810,72
Transf. arruntak	19.123.598,63	19.252.945,44	19.130.329,39	18.072.405,78
Ondare bidezko diru-sarrerak	3.890.789,56	3.892.784,05	4.036.277,30	3.668.095,33
Inberts. Erreal. Bester.	1.245.744,09	1.245.744,09	1.320.716,71	1.305.807,57
Kapital-transferentziak	17.452.140,39	19.745.654,96	12.167.622,24	8.658.302,93
Finantza-aktiboak	103.842,60	5.212.658,10	39.724,69	2.389,81
Finantza-pasiboak	4.325.872,17	4.797.887,44	1.275.936,94	1.275.936,94
Guztira	70.150.437,75	78.323.511,29	61.660.253,99	54.598.149,50

2011n batez beste gastaturiko 100 euro bakoitza honakoetarako erabili da eta honakoen bidez finantzatu da:

Gastuaren izaera	Zenbatekoa, 2011	Finantzaketa-iturria	Zenbatekoa, 2011
Langileak	24	Tributu bidezko diru-sarrerak	38
Bestelako gastu arruntak	38	Transferentziak	51
Inbertsioak	32	Ondarearen diru-sarrerak eta beste batzuk	9
Finantza-zama	6	Zorduntzea	2
Guztira	100 €	Guztira	100 €

Nafarroako toki-sektore publikoko batez beste-koarekin alderatuta, txosten hau egiteko unean eskura genituen 220 udalerriren datuen arabera, honako alderdi hauek azpimarratzen ditugu:

- Langile-gastuek ehuneko 24 hartzen dute; Nafarroako toki-sektore publikoaren batez bestekoa, berriz, ehuneko 33koa da. Ondorioz, 500-2.000 biztanle dituzten udalek langile-zama txikiagoa dute.
- Aitzitik, inbertsioetarako gastua (ehuneko 31) toki-sektorearen batez bestekoa baino handiagoa da (ehuneko 23).

- Finantzaketa-iturriei dagokienez, aipagarria da transferentzietatik eratorritako diru-sarreraren mendekotasun handia, zazpi puntu toki-sektorearen batez bestekotik gora.

- Udal horietan, zerga bidezko diru-sarrerak 466 eurora iristen dira, per capita, eta toki-sektore osoaren batez bestekoaren antzekoak dira, zazpi euro gainera baino ez baitaude.

Sailkapen funtzionalari begiratuz gero, era honetara banatzen dira gastuak:

Funtzioa	Zenbatekoa, 2011	Portzentajea
Zerbitzu orokorrak	12.168.151	19,5
Babes zibila eta herritarren segurtasuna	51.440	0,1
Segurtasuna, babesa eta gizarte-sustapena	7.425.082	11,9
Gizarte izaerako ondasun publikoen babesa	34.864.895	55,9
Izaera ekonomikoko ondasun publikoen produkzioa	1.971.302	3,2
Ekonomia-arauketa	557.053	0,9
Jarduera ekonomikoa eta sektore produktiboen arauketa	1.404.205	2,3
Administrazio publikoetarako transferentziak	435.932	0,7
Zor publikoa	3.497.736	5,6
Guztira, 2010	62.375.796	100

Hau da, gastuaren ehuneko 87 gizarte-gastua, administrazioaren beraren zerbitzuak eta azpiegiturak finantzatzeko baliatzen da.

Laburbilduz, 500 eta 2.000 biztanle bitarteko biztanleria duten udalen tokiko azpisektorearen aurrekontuaren 2011ko erradiografia, toki-sektorearen batez bestekoari buruz, era honetara labur daiteke:

- Pisu erlatibo txikiagoa langile-gastuetan.

- Kontzentrazioa gainerako gastu arruntetan eta bereziki inbertsioetan.

- Oinarrizko finantzaketa transferentzien bitartez eta, maila apalagoan, zerga bidezko eta ondare bidezko diru-sarreraren bitartez.

- 2011n, biztanleko zorra 585 eurora iritsi da, Nafarroako batez bestekoa baino 337 euro handiagoa.

- Aurrekontuaren funtzioari dagokionez, gizarte-gastuan pilatzen da gehien.

Hurrengo taulan erakusten da Udal horien adierazle nagusiek eta magnitudeek 2008tik 2011ra izan duten bilakaera.

Izendapena	2008	2009	2010	2011 <sup>1</sup>	Aldea (%) 2011-2008
Toki Adm.ri kontuak igortzen dizkioten udal kopurua	60	61	63	51	% -15
Biztanleria	60.861	61.961	63.503	50.861	% -16
Gastuak guztira (biztanleko)	1.914	1.695	1.449	1.226	% -36
Funtzionamendu-gastuak (biztanleko)	782	796	790	753	% -4
Gastu arruntak (biztanleko)	808	820	803	770	% -5
Ordainketak bete diren, %	79,22	86,83	86,71	89,09	% 12
Inbertsio garbia (biztanleko)	895	733	509	348	% -61
Inbertsio-indizea (%)	52,39	46,30	38,76	30,51	% -42
Langile-indizea (%)	14,95	17,29	20,04	23,70	% 58
Diru-sarrerak guztira (biztanleko)	1.908	1.675	1.533	1.212	-36%
Zerga bidezko diru-sarrerak (biztanleko)	526	499	501	466	% -11
Diru-sarrera arruntak (biztanleko)	1.021	970	972	921	% -10
Kobrantzak bete diren (%)	80,83	84,07	86,45	88,55	% 10
Transferentzia arruntekiko mendekotasuna (%)	36,42	39,37	38,96	40,83	% 12
Aurrezki gordina (biztanleko)	239	174	182	168	% -30
Finantza-zama (biztanleko)	69,55	95,99	82,51	73,63	% 6
Aurrezki garbia (biztanleko)	170	78	100	94	% -45
Zor bizia (biztanleko)	653	677	686	682	% 4
Zor bizia/diru-sarrera arruntak	% 64	% 70	% 71	% 74	% 16
Zorpetze-maila (%)	6,81	9,89	8,49	7,99	% -22
Zorpetze-ahalmena(%)	16,63	8,09	10,27	10,22	% -10
Zorpetze-muga (%)	23,44	17,98	18,76	18,22	% -2
Gastu orokorren diruzaintzako gerakina (biztanleko)	272	236	293	210	% -23
Aurrekontu-emaizta doitua (biztanleko)	22,34	0,93	66,42	48,09	% 131

Horiek aztertuta, ondokoak nabarmentzen ditugu:

- Biztanleko gastuak ehuneko 36 murriztu dira, inbertsioen alorrean bereziki (ehuneko 61eko murrizketa).
- Funtzionamendu-gastuak, per capita, ehuneko lau egin du behera aztertutako aldian.
- Langile-gastuen garrantzia ehuneko 58 handitu da guztizkoari buruz; igoera hori, edonola ere, aurrekontuetan izan den murrizketaren ondorioa izan da, eta ez langile-taldeak handitu izanaren ondorioa.

- Ordainketen eta kobrantzen betetze portzentajeek hobera egin dute aztertutako aldian, eta ehuneko 89koa izan da batean zein bestean.

- Guztizko sarrerak, per capita, ehuneko 36 murriztu dira, eta zerga bidezkoak ehuneko 11.

- Biztanleko aurrezki gordina ehuneko 30 murriztu da, eta horrek eta finantza-zama igotzeak eragin du aurrezki garbia ehuneko 45 murriztea aztertutako aldian. Hori gorabehera, egoera 2009ko egoerarekin alderatuz gero, adierazle horiei dagokienez hobera egin dela ikusten da, batez ere finantza-zama murriztu egin delako.

(1) Txosten hau egiterakoan kontuak bidaliak zituzten udalak.

- Biztanleko zor biziak ehuneko lau egin du gora 2008-2010 urteetan.

- Zor biziaren ratioa diru-sarrera arruntei dagokionez ehuneko 75 ingurukoa da; eta horixe da zor berria egiteko aukera ematen duen legezko muga.

- Zorpetze-mailak ehuneko 17 egin du gora, eta horren muga eta gaitasuna murriztu egin da aztertutako aldian.

- Biztanleko diruzaintzako gerakina gastu orokorretarako ehuneko 23 murriztu da, aldiz, aurrekontu-emaizta doitua biztanleko ehuneko 115 handitu da.

Udal bakoitzari dagokion gehigarrietan zehazten da zein diren horien adierazle nagusiak.

#### IV.4. AZPISEKTORE HORREN INFORMAZIO SOZIOEKONOMIKOA

Eskura dugun informazioaren arabera, aztertutako azpisektore osorako hainbat alderdi sozioekonomikori buruzko ondorio nagusiak azaltzen dira oro har. Udal bakoitzaren egoera dagokion gehigarrian azalduko da.

##### IV.4.1. Demografia

IV.1. atalean adierazi bezala, udal horiek 63.706 biztanle dituzte guztira, hau da, Nafarroako

biztanleria osoaren ehuneko 9,92. Biztanleria horri dagokionez, honako alderdi hauek nabarmentzen ditugu:

- 15 urtetik beherako biztanleriak ehuneko 14 osatzen du, Nafarroako guztizko kopuruaren azpitik, nahiz eta portzentaje-diferentzia 1,4 puntukoa baino ez izan.

- Alderantziz, 65 urtetik gorako portzentajea ehuneko 22ra iristen da, eta lau puntutan gainditzen du Nafarroakoa.

- Mendekotasun-indizea, edo lan egiteko adinean ez dauden pertsonen arteko ratioa (0-15 urte eta 65 urtetik gora) gainerako biztanleen aldean, ehuneko 56ra iristen da, Nafarroako guztizkoa baino zazpi portzentaje-puntu handiagoa.

- Gizonezkoen ehuneko emakumeena baino handiagoa dela esan liteke, Nafarroakoaren aldean.

- Udal horietako biztanleen ehuneko zazpi atzerritarrak dira, eta Nafarroa osoan, berriz, ehuneko 12,6.

##### I.4.2. Langabezia

Taula honetan langabeziak sexuaren arabera udal horietan eta Nafarroan oro har izan duen bilakaera konparatzen da.

Langabezia: kopurua eta sexua-adin tartea ehunekotan

	2007		2008		2009		2010		2011	
	500-2.000 bizt.	Nafarroa	500-2.000 bizt.	Nafarroa	500-2.000 bizt.	Nafarroa	500-2.000 bizt.	Nafarroa	500-2.000 bizt.	Nafarroa
Gizonezkoak guztira	606	8.810	1.122	16.662	1.483	20.827	1.563	21.470	1.689	23.245
Portzentajea	39,20	40,83	46,89	50,56	49,12	51,23	48,59	49,92	49,21	49,51
Emakumezkoak guztira	940	12.765	1.271	16.294	1.536	19.826	1.654	21.541	1.743	23.701
Portzentajea	60,80	59,17	53,11	49,44	50,88	48,77	51,41	50,08	50,79	50,49
Langabezia guztira	1.546	21.575	2.393	32.956	3.019	40.653	3.217	43.011	3.432	46.946

2011. urteko datuen azterketatik honakoa azpimarratzen dugu:

- Langabetuen ehuneko 50,79 emakumezkoak dira, Nafarroako batez bestekoaren antzera.

- Langabetu gehienak 25 eta 44 urte bitartekoak dira, bai gizonezkoen bai emakumezkoen kasuan, eta ehuneko txikiena 25 urtetik beherako biztanleen taldekoek osatzen dute.

- 2007. urtea oinarri-urtea hartuta, 2011n langabeziak ehuneko 122 egin du gora udal horietan,

Nafarroan egin duenaren pixka bat gainerik, Nafarroan ehuneko 118koa izan baita.

- Gizonezkoen artean langabeziak ehuneko 179 egin du gora udal horietan eta ehuneko 164 Nafarroan, eta emakumezkoena baino askoz ere handiagoa da (ehuneko 85 eta ehuneko 86, hurrenez hurren).

Langabeziaren azterketa sektoreen arabera egiten bada, honakoa ikusten da:

## Langabezia: kopurua eta ehunekoak sektorez sektore

	2007		2008		2009		2010		2011	
	500-2.000 bizt.	Nafarroa	500-2.000 bizt.	Nafarroa	500-2.000 bizt.	Nafarroa	500-2.000 bizt.	Nafarroa	500-2.000 bizt.	Nafarroa
Nekazaritza	41	398	77	704	116	1.128	139	1.499	149	1.823
Portzentajea	2,65	1,84	3,22	2,14	3,84	2,77	4,32	3,49	4,34	3,88
Industria	401	4.242	653	7.045	773	8.666	786	8.283	806	9.092
Portzentajea	25,94	19,66	27,29	21,38	25,60	21,32	24,43	19,26	23,48	19,37
Eraikuntza	130	2.455	258	5.032	387	6.433	355	6.123	378	6.098
Portzentajea	8,41	11,38	10,78	15,27	12,82	15,82	11,04	14,24	11,01	12,99
Zerbitzuak	905	13.570	1.300	18.962	1.596	22.743	1.735	24.751	1.930	27.412
Portzentajea	58,54	62,90	54,33	57,54	52,87	55,94	53,93	57,55	56,24	58,39
Aurretik lanik gabe	69	910	105	1.213	147	1.683	202	2.355	169	2.521
Portzentajea	4,46	4,22	4,39	3,68	4,87	4,14	6,28	5,48	4,92	5,37
Guztira	1.546	21.575	2.393	32.956	3.019	40.653	3.217	43.011	3.432	46.946

• Udal horietan langabezia gutxien duen sektorea nekazaritzaren sektorea da, nahiz eta Nafarroakoa baino handiagoa den; edonola ere, sektore horretan handitu da gehien langabezia.

• Aztertutako entitateetan langabezia gehien izan duen sektorea zerbitzuena izan da, ehuneko 53 eta 59 artekoa; Nafarroan kopuru horiek, aldiz, ehuneko 56 eta 63 bitartekoak dira.

#### IV.4.3. Lurralde-aberastasuna. Ondasun higiezinak

2011n hiri- eta landa-hektareak, udalerririk horietan, 5.619 eta 246.431ra iristen ziren, hurrenez hurren; beraz, lurraldearen ehuneko 98 landa-lurra zen.

Ondasun higiezienei dagokienez, 2009 eta 2011 bitartean, 11.165ean handitu da horien kopurua udalerririk horietan, eta, horrela, 166.300 higiezin izatera iritsi da, 4,98 milioi euroko balioarekin. Igoera hori, ehuneko 7,2koa, Nafarroa osoan izandakoa baino handiagoa da, ehuneko bostekoa izan baitzen.

#### IV.4.4. Industria

Nafarroako Gobernuak Nafarroako enpresa nagusien katalogoan dagoen azken informazioaren arabera, udal horietako 34tan 88 enpresa nagusi daude.

Galar Zendeako Udala da aipagarriena, bertako Cordovilla eta Ezkizoko kontzejuetan 24 enpresa baitaude. Horren ondotik daude: Tiebas-muru

Artederreta bost enpresekin, Ultzamakoa lau enpresekin eta Laguntza, Lekunberri, Olazti eta Doneztebekoak hiru enpresekin.

Enpresa horien ehuneko 68 industriaren sektorean dihardu, ehuneko 26 zerbitzuen sektorean eta gainerakoak eraikuntzan.

#### IV.4.5. Ikastetxeak

Honako hauek dira aztertutako udaletan dauden ikastetxeak: 0 eta 3 urte bitarteko haur hezkuntzako 15 eskola, haur hezkuntzako 46 ikastetxe, lehen hezkuntzako 46 ikastetxe, DBHko sei ikastetxe, lanbide heziketako ikastetxe bat, hasierako lanbide gaitasunerako ikastetxe bat eta bederatziko musika-eskola.

16 udal daude inolako ikastetxerik ez dutenak.

#### IV.4.6. Kirol-instalazioak

Aزتututako udal guztiek eta horiek kontzejuek dute kirol instalazioren bat. Aztertutako udalek guztira 141 frontoi dituzte, 29 udal igerileku, 37 udal kiroldegi, 29 futbol-zelai eta bestelako 101 instalazio (aretoak, pistak edo balio anitzeko guneak).

#### IV.4.7. Parte-hartze politikoa

2011ko udal-hauteskundeetara dagozkien datuen arabera, honakoak dira udal horietako abstentzioen, boto zurien eta boto baliogabeen ehunekoak eta Nafarroako datu orokorreko konparazioa:

Ehunekoak	500-2.000 biztanle	Nafarroa
Abstentzioak	25,31	30,30
Boto zuriak	5,87	3,19
Boto baliogabeak	3,30	2,2

Nafarroa osoarekin alderatuta, udal horietan boto zurien eta baliogabeen portzentajeetan balio

handiagoak daude, eta, aldiz, abstentzio gutxiago daude.

## V. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA BERRANTOLATZEKO FORU LEGEAREN AURREPROIEKTUA

2012ko urriaren 3an aurkeztu zen Nafarroan Nafarroako Toki Administrazioa berrantolatzeke Foru Legearen aurreproiektua, honako helburu hauekin:

- Kudeaketa ekonomikoa eta udal zerbitzuak arrazionalizatzea eta hobetzea.

- Herritarrek zerbitzuak hartzeari dagokionez ahal besteko berdintasuna izatea.

- Nafarroako Toki Administrazioaren mapa administratiboa eta funtzionala lurraldean kokatzea.

Helburu horiek lortzeko, hainbat neurri proposatzen dira, baina honako hauek dira nagusiak:

- Tokiko esku-hartzeari eta idazkaritzari dagokion zerbitzuak zentralizatzea, eta gaur egun dauden 166 unitateak 103ra murriztea lehenengo fasean eta tokiko mapa berriari aplikatzeko azken helburu gisa 40ra iristea. 2.000 biztanletik gorako udaletako unitateei eutsi egingo litzaieke eta biztanle gutxiagokoetan elkartu egingo lirarteke.

- Interes Orokorreko sei Mankomunitate sortzea gaur egun dauden 67ak elkartzeko, Erribera, Nafarroa Erdialdea, Estellerría, Iruñerria, Zangoza-Pirinioa eta Bidasoa-Sakana. Entitate berri horietan sartu edo ez udalek berek erabakiko dute.

- Kontzeju kopuruari eustea, berezitasun hauekin:

a) 1.000 biztanletik gorako kontzejuek, baldin eta parte hartzen duten udala baino handiagoak badira, horren barruan sartu beharko dira.

b) Borondatez iraungitzea erraztuko da.

c) Derrigorrez iraungiko dira ez badago hauteskundeetako hautagairik, administrazio-betebeharrak betetzen ez badira eta 16 biztanle baino gutxiago baditu.

d) Ezingo da kontzeju berriak sortu.

e) Horien eskumenak murriztea, eta ekonomia-aren, aurrekontuaren eta finantzaren alorrean aholkularitza jasotzea parte hartzen duten udalaren kontu-hartzailearen aldetik.

- Udal kopuruari eustea, nahiz eta sustatuko den horiek borondatez bategitea eta iraungi egingo dira ez badago hauteskundeetarako hautagairik. Bestalde, zerbitzuak emateko udal arteko egituretan txertatzearen alde egingo da.

- Dauden 11 batasun tradizionalak murriztea toki-entitatearen izaera gorde duten lau hauetara: Nafarroako Errege Bardeako Komunitatea, Aezkoa Ibarreko Batzarra, Erronkari Ibarreko Batzarra eta Zaraitzu Ibarreko Batzarra.

Proposatutako kudeaketa-ereduaren aldaketa horrek, aipatutako foru legearen aurreproiektuan azaltzen den bezala, gaur egungo finantzaketa-eredua aztertu behar da eta Toki Ogasunek Nafarroako zergetan duten Parte-hartze Funtsa berrikusi behar da.

Azken batean, horiek dira Nafarroako Gobernuak aurkeztu eta Parlamentura bertan eztabaidatzeko igorri duen aurreproiektuaren ildo nagusiak.

Txosten hau Karen Moreno Orduña kontu-ikus-katzaileak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna, indarrean den araudiak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñea, 2012ko urriak 16

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

**Eranskina. Udalen biztanleria 2011ko urtarrilaren 1ean**

Udala	Biztanleria	Udala	Biztanleria
Abartzuza	548	Goizueta	771
Oibar	887	Igantzi	635
Allin	844	Ituren	523
Allo	1.075	Itza	1.093
Ameskoabarrena	793	Txulapain	566
Añorbe	562	Lakuntza	1.237
Araitz	567	Larraun	1.008
Arakil	956	Lekunberri	1.473
Arantza	644	Lerin	1.863
Arbizu	1.082	Irunberri	1.412
Los Arcos	1.244	Mélida	755
Arroitz	1.124	Mendigorría	1.066
Artaxoa	1.736	Miranda Arga	929
Aiegi	1.932	Monteagudo	1.149
Barasoain	645	Murillo el Cuende	655
Basaburua	888	Murillo el Fruto	706
Berbintzana	714	Obanos	926
Bertizarana	646	Otsagabia	625
Cabanillas	1.493	Olatzagutia	1.696
Cárcar	1.161	Oteitza	956
Kaseda	1.031	Pitillas	555
Oltza Zendea	1.655	Santakara	928
Zirauki	505	Sartaguda	1.428
Deikaztelu	687	Sesma	1.270
Doneztebe	1.679	Sunbilla	663
Erro	795	Tiebas - Muru Artederreta	675
Etxalar	826	Uharte-Arakil	836
Etxeberri	591	Ultzama	1.706
Ezkabarte	1.675	Urdiain	714
Fontellas	933	Deierri	1.546
Galar	1.783	Villatuerta	1.122
Garinoain	518		